

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES
<b>VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO</b>
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Etxebizitzako zuzendari nagusia Erronkarira joan da Europa mailan saritu den etxebizitza jasangarri bat ikustera

*Arias Etxea Espainian alemaniako Passivhaus Institut institutuak ematen duen "etxe pasiboa" ziurtagiria jaso duen bigarren etxebizitza da*

Jueves, 14 de abril de 2011

Jesús Ascunce, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako zuzendari nagusia Erronkarira joan da gaur, Alemaniako Darmstadt hiriko Passivhaus Institut institutuak Nafarroako etxebizitza bati ziurtagiria emateko ekitaldira. Lehenengo aldia da Nafarroako etxebizitza batek institutu horren ziurtagiria jasotzen duela. Hortaz, Erronkariko Arias Etxea estatuan "etxe pasiboa" ziurtagiria lortu duen bigarren etxebizitza da. Horrek esan nahi du klima, tenperatura eta eguzkia ahalik gehien aprobetxatzen dituen etxea dela, eraikina berotzeko edo hozteko energia edo baliabideak ez ditu modu aktiboan erabili behar.

Ekitaldia proiektuaren sustatzaileek antolatu dute, hau da, Carpintería y Ebanistería Arias eta Bau Passivhaus enpresek. Etxebizitzan bertan izan da eta hainbat enpresa eta elkarteetako ordezkariak ere parte hartu dute: Cederna-Garalur, CENER, Nasursa, VINSa, Nasuinsa, Miyabi, Nafarroako Arkitektoen eta Aparejadoreen Elkargoa, eta PEP edo Eraikuntza Pasiboen Espainiako Plataforma. PEPEko presidentea, Javier Crespo, izan da, hain zuzen ere, Arias Etxearen jabea Passivhaus Institut institutuaren ziurtagiria eman diena.

Wolfgang Berger arkitekto alemanak eraikin jasangarriaren onurak azaldu ditu; etxeak, duen orientazio estrategikoaren bidez ere, baliabideak optimizatzen ditu. Mintzaldian, Erronkariko Arias Etxearen berezitasuna azpimarratu du: etxebizitza osoan ur beroa izateko instalazio geotermiko bidez energia berriztagarriak erabiltzen ditu. Gainera, azpimarratu du passivhaus ziurtagiria duten eraikinak energiaren aldetik eraginkorrak direla eta m<sup>2</sup>-ko 15 kw kontsumitzen dutela; beste era batera esanda, ohiko eraikin batek kontsumitzen duena baino % 70 gutxiago. Europa erdialdean oso ezaguna den eraikin mota horren alde onak, besteak beste, eguzki energiaren aprobetxamendu ezin hobea, isolamendu termikoa, eragimen handiko aireztatzeko sistema kontrolatua beroa berreskuratzea ahalbidetzen duena, aireko infiltrazioen kontrol zorrotza edo kalitate handiko egurra eta beirak.

Arias Etxea Nafarroak hartutako konpromisoaren adierazgarri da, alegia, gutxiago kontsumitzen duten eraikinak, energia berriztagarriak ahalik gehien aprobetxatzen dituztenak eta, azken finean, jasangarriagoak direnak egiteko duen konpromisoarena.